



EUSKAL KULTURAREN BATZARREA



Lehendik fuertez zetozen mugimendua gora erazten ahalagijodu da Jaureritza, bere egin beharrik handienetakoa herri hau euskararen alde kontzientziaztea eta euskalduntze-alfabetatze kanpaina handiak antolatzea litzatekeena.

Euskararen Normalkuntza eta Euskara Nazio Hizkuntza dira helburuak. Bitartean ordea adostasun oinarritzko puntu batzura ailegatu behar gara talde eta sail guztiak bide horretan jarraitzeko.

Egin dezagun Batzarrea!

Artikulu batzu badira astelehenero EGUNON honetan argitaratu ditugunak. Gutxi gora behera betiko gauzatzaz aritu izan gara. Zehazkiago ala nahastuago beti, euskaltzale gehienon buruan dabilzkgun kezkei bueltak emanaz ea nondik bilatu aterabidea hiltzen ari zaigun, benetan hiltzen ari zaiGUN, -ta hau ez da topiko bat, hau erreallitate beltz eta maltzur bat da— euskarari.

Kezak alde batek, artikuluak bestiek, bilerak, honekin hitzegun bestiekin hitzegin, badaramagu denbora dexente gauzak egiten. Ezkutuko lana nahi bada, lan isila. Hortxe ordea.

Uste dugu ordua iritsi dela ideia hau hedatu, zabaldu eta errotzeko Euskal Herri osoan, Batzarrearen ideia alegia. Euskararen inguruan lan egiten dugun guzion batzarritzea alegia gaur egungo problematikari aurre erantzuteko.

Asko dira etsaiak: asko dira ejerzito, Goardia Civil eta Policia Nacional-ekoak— eta garbi dago egia nahikoa ez bada ere hauek Euskal Herriatik bidali arte ez dela aukerarik izango euskara hizkuntza zapalduak hizkuntza normalizatu bat izatera pasatzeko—. Asko dira etsaiak genioen: hor dago Constitución Española-ren 3. artikulua, hor Autonomia Estatutuaren 6.a. Ez bataz ez besteak garrantzitzen dute gure Hizkuntza Nazionala izatea nahi dugun euskararen iraupena.

Ez da bakarrik ez garrantzitzea: ito egiten dute euskara, bai bataz eta bai besteak. Cons-

titudión-ean esaten da española dagoela, beste hizkuntzarik ez da aipatzen (nahiago genuke aipatu behar ez izatea Austrian edo Euskara aipatu beharrik ez daukaten bezala). Ez da hori ordea gure egoera. Euskararik ez balitz bezala jokatzan du estatu espaiolak (joan zen astetan Gasteizko Foru Diputazioa eta injinari postu hura zela eta gertatutakoak begiratzea besterik ez dago bestela).

Estatutuan berriz esaten da euskara "lengua propia" dela, "typical basquish" alegia, "danza propias" eta ez dakit zenbat ezaugarri "propioak" izan ditzakegun bezalaxe. Hori jarri estatutuan eta alper alperrik izan: gaztelera ikastera behar-tzen den heinean, gizarte guztiak jakin eta erabili behar duen heinean, euskara erabil-tzeko "eskubidea" dauka nor-banako bakoitzak (ingelesa edo errusiera jakin dezakeen mo-duan).

Euskararen Normalkuntza maila guzitan

Beste gauza bat izango litzateke borondate politikoz hitzegitea, edota Madrilik eta Gasteizek euskara hil nahi duten ala ez eztabaidatzen hastea.

Guk dioguna da, eta datuak eskuan ditugularik, gaurko erreallitatean ez bataz eta ez besteak egiten dutela behar adina euskara fisikoki bere heriotz bidetik ater dadin. Gehiago esango genuke, besteak ahalik eta gehiena egiten du bataz egiten duen gauza eskasa alperrik gal dadin. Eta hori aprobetxatzen du beti bataz

esanaz besteen tokira joatera-koan, hau da Madril, han dena atzera botatzen diotela.

Eta ez bataz eta ez besteak, ez Gasteizek ez Madrilik gauza handirik ez dutela egiten diogun-ean esan nahi dugu ez formalki eta ez errealki ez dutela egiten: formalki, legetan lehen ikusi dugun bezala, eta errealki, eguneroko lanetan euskararen inguruan lanean gabiltzan guz-tiok pairatzen ditugun jasan-gaitzeriak aguantatzen ditugu-nean.

Ez da sekreto handia urtetan lanean dihardugun erakunde-oi nola lagundu digun Eusko Jaurlaritzak ikustea: begira zen-bat "perrotxiki" ematen dizkio-ten UZEIri, begira AEKK jasot-zen dituen makil-subentzioak, begira UEUra joateko zenbat lagunduko dizuten zure gober-nutik...eta gero zergak ordain-tzera deituko zaituzte inolako lotsarik gabe.

Ez da inolako sekreto handia Eusko Jaurlaritzak euskaragatik egin dituen guztiak —ETB eta Euskadi Irratia kenduta— beste erakunde herrikoik bat lanean ari zen tokian eraiki duela, eta hari lagundu beharrean, institu-zionalizatzeko "behar" horregatik beste denak txikitzen joan dela.

Eta ez da inolako sekreto esatea bide horretatik lortu duten gauza bakarra urtetan egindako lana desmantelatzea eta herria desmobilizatzea izan dela (Hori nahi genuen, eran-tzungo dizute agian harro harro jarrita).

Oinarritzko akordio bat

Esan behar dena da hilzoritik

ia bueltatu ezinean dagoen hizkuntza bat —ez dakigu bere onera ekartzea posible ote den errealki—, egoera horretan dagoen hizkuntza bat bere onera ekartzeko —ahal bada behintzat— mobilizapen handi bat egin beharko dela.

Esan behar da Euskal Herriaren ehuneko larogeia euskalduntzeko, hau da hamarretik zortziri euskara erakutsi behar zaie, eta euskaldunen ehuneko larogeia hamarra alfabetatzeko kanpaina handiak egin behar direla halaber. Eta kanpaina hauek, mobilizapen hauek egiteko daude oraindik. Hasteko (AEKK egin dituenak kontutan hartuko ez bagenitu).

AEKK ordea, eta beste guztiok, gauza limitatuak egin ahal ditugu. Egin ahal izango dira gauzak, eta goazen bezala ia bide honetatik bakarrik egingo dira gauzak, eta halaz ere ez dira aski izango. Kontzientzia-tze kanpainak dira aurrenengo behar direnak, bestela beti izango da diskriminatzailea gazte-leraz ez hitzegitea. Zaila da baina tira. Egin beharrekoa. Eta lan hau —bere handitasunagatik— euskararen inguruan gabil-tzan sektore bakoitzak gure alde-tik egin dezakeguna baino handiagoa da. Horregatik deit-zen dugu Batzarrea. Horrega-tik deitzen dizugu zure herrian, zure tokian euskararen alde lan-egiteko batzordeak zor ditzazu-n.

Batzartu gaitezen eta jar dit-zagun horretarako oinarritzko puntu batzuk. Hitzezin ditzagu-n, eztabaida ditzagun puntu horiek. Zer behar du une hone-tan euskarak bere amildegian

ez dadin beherago erori? Nola-ko parakidas-a jarri ahal diogu? Helburutan konforme egongo gara gehienak. Bat eto-rriko gara dena helburutan.

Oinarritzko puntuak jarriko ditugu horien inguruan lan egi-teko. Horien inguruan batzeko eta horren inguruan aurrera egiteko. (Batzea ez da berez helburu bat, hasiera bat baino).

Antola dezagun Batzarrea

Guziau garbi izanda datorren asteko larunbatean, hau da ekainaren 30ean Eibarren bil-duko gara, horretarako dei ireki bat egiten dugularik hemendi-kantxe, Eibarren bilduko gara EHE, AEK, UEU, EHUko sai-lekoak, irakaskuntzakoak, eta hemen behin baino gehiagotan aipatu izan ditugun sail guzti-takoak Batzarreari hasiera emateko.

Nahi genuke herri bakoitze-tik ere horretaz arduratzen den oro agertzea, bai Eibarren, eta bai Iruñean uztailearen 21ean UEUren barruan egingo dugun batzarrearen jarraieran.

Hasiera bat da. Kostata has-tera doan zerbaiten hasiera, baina hasiera.

Eibarren, eta orain arte saile-tako lagunek egindako lanari esker, une honetan euskarak sail guzitan jasaten duen egoera agertuko da. Larria benetan.

UEU jarraiera emango zaio horri eta han pentsatu beharko da Batzarrearen eraikuntza, bere antolakuntza alegia. Ez da erraza izango, aurretik diogu. Baina saiatu behar gara, gure txanda da.